

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### Jarduera Ekonomikoen gaineko 2021eko Zerga ordaintzeko epearen hasiera

Xabier Alvarez de Arkaya Fernández de Landa, Urkabustaizko (Araba) udalerriko Alkatea naizen honek, jakinarazten dut:

2021eko urriaren 30etik abenduaren 30era bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, ondoren adierazten den zergaren 2021eko ordaingiriak:

– Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

#### 1. Ordaintzeko epea:

Borondatezko epea: 2021eko urriaren 30etik abenduaren 30era bitartean. Helbideratuta dauden ordainagiriak kobratzera pasatuko dira 2021eko abenduaren 30ean.

Premiamendu aldia: Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitute otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergenaren, 28. artikulua eta Dirubilketaren Arautegiak, dagokion errekarguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak.

#### 2. Ordaintzeko lekua eta modua:

Ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berberean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa. Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek borondatezko epean soilik ordaindu ahaliko dute, kutzabankeko bulegoetan.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak, Urkabustaizko Udalean izapidetu beharko dira.

Argitaratu egiten da, guztiek jakin dezaten.

Izarran, 2021eko irailaren 16an

*Alkate-presidentea*

**XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA**